

## JARDUNALDIAK:

### GaiGram-EHren I Jardunaldiak - Irakaskuntza berritu, hezkuntza eraberritu

#### NORETZAT:

EHUn matrikulatutako ikasleak eta bigarren hezkuntzako irakasleak

#### HELBURUAK:

Jardunaldi hauek Gaitasunetara bideraturiko gramatia (GaiGram) ekimena gauzatzen dute lehen aldiz Euskal Herrian. GaiGram ekimenak gramatikak Bigarren Hezkuntzan duen lekuari buruz gogoeta egitea du helburu, irakasleen, unibertsitateko ikerlarien, Bigarren Hezkuntzako zentroen eta irakasleen berrikuntzarako zentroen arteko elkarlanaren bitartez. GaiGram-ek hainbat jardunaldi eta tailer antolatu ditu jada Bartzelonan, Ciudad Realen eta Zaragozan. Portugalen ere bada antzeko ekimenik. GaiGram-en helburuak eta ekintzak honako esteketan ikus daitezke:

<http://groc.info/es/>

<http://hittlinguistics.wixsite.com/groc-euskalherria>

#### HELBURU AKADEMIKOAK

- Bigarren hezkuntza eta unibertsitateko inguru akademikoaren arteko eztabaidarako guneak sortzea, bai irakasle eta irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleen artean.
- Bigarren hezkuntzako irakasleak eta irakasleak izateko ikasten dutenak orientatzea eta gramatikaren irakaskuntzan (Ingelesa, Latina, Grekera, Gaztelera eta Euskara) teknika berritzaileen erabilera praktikoa erakustea.

#### ANTOLATZAILEAK:

Euskal Herriko Unibertsitatea

#### LEKUA:

UPV/EHU Letren Fakultatea

#### DATA:

2017ko martxoaren 1 eta 2

#### LUZAPENA:

25 ordu

#### PROGRAMA IKASTARO-MINTEGIA:

##### 1) Ikaslearen lan presentziala

3.5 orduko 2 saio.

**Martxoaren 1: 17.00 – 20.30**

*Qué es GroC y por qué (algo así) es necesario?*

Ángel GALLEGO (UAB)

Hitzaldi honek bi helburu ditu. Batetik, GaiGram proiektua (Gaitasunetara Bideratutako

Gramatika) aurkeztuko dugu; horretarako, proiektua motibatu zuten faktoreak azalduko ditugu, baita azken lau urteetan bultzatutako ekintzak eta epe ertain-luzera ditugun erronkak ere.

#### ***De la investigación al aula de la mano de la fonética y la fonología.***

Gorka ELORDIETA, Lucía MASA y Myriam URIBE-ETXEBARRIA (UPV/EHU)

Gutxitan izaten dugu ikasgelan Bigarren Hezkuntzako ikasleei giza hizkuntzaren gaitasuna zertan datzan azaltzeko aukera. Era berean ez da aukera handirik egoten hizkuntzalaritzan egindako aurrerapenak aurkezteko. Hitzaldi honetan ikasleentzat erakargarriak izan daitezkeen giza hizkuntzaren ezaugarri interesgarri batzuk aurkeztuko ditugu, fonetika eta fonologiaren arlokoak (hau da, soinuen mundukoak), eta honetan oinarrituz, hizkuntzaren oinarriko ezaugarri batzuk azalduko ditugu. Ikasleen kontzientzia linguistikoa piztaraztea helburu gisa harturik, fonetikako oinarriko aurkezpen bat egingo dugu. Honek bidea emango digu aniztasun linguistikoaz jabetzeko. Hau dena lagungarria izango da bigarren hizkuntza bat ikasterakoan hizkuntzen artean dauden ezberdintasun fonetikoez ohartarazteko.

#### ***El modelo FLIPPED LEARNING aplicado a la enseñanza de la gramática***

Juan Pablo MORA (U. Sevilla)

Aurkezpen honetan, Flipped Learning edo alderantzizko eskolen ereduaren oinarriak azalduko dira, gramatikaren irakaskuntzari aplikatuta. Eredua adibide praktiko baten bidez erakutsiko da: ikasleek euren kabuz, taldeko ikaskuntza kooperatiboaren bidez, hizkuntza erromaniko eta germanikoetan leku bateranzko mugimendua adierazteko erabiltzen diren hainbat egitura ikasteko tailer kontzeptual bat aurkeztuko da.

### **Martxoaren 2: 16.30-20.00**

#### ***Aplicaciones del proyecto GROC***

Germán CÁNOVAS (Europa International School de Sant Cugat)

Gure proiektuaren alderdi aplikatua erakusten dituzten zenbait jarduera aurkeztuko dira (materialak eta formazioa).

#### ***¿Para qué me sirven los árboles sintácticos si yo 'sólo' enseño inglés?***

M. Juncal GUTIÉRREZ MANGADO y Bryan LEFERMAN (UPV/EHU)

Aurkezpen honetan ingeles gramatika ikasten ari diren 3. mailako unibertsitate ikasleekin burututako proiektu baten berri emango dugu. Proiektuaren helbura ingelesa ikasten dutenean ikasleek sintaxiarekiko izaten duten mesfidantza gainditzea da. Xede honekin 'Proiektuetan oinarritutako ikasketa' eredua erabili dugu; jarduera honetan, ikasleek talde txikitik banatuta euren ikaskideek ekoiztutako testuak editatzen dituzte. Estilo gidaliburu bat sortzen dute, Pinkeren (2014) 'Sense of Style' liburua oinarritzat hartuta. Liburu horretan, besteak beste, analisi sintaktikoen garrantzia azpimarratzen da testu gramatikal eta koherenteak sortzeko, gure ikasgaiaren kasuan C2 mailan.

#### ***Zer ez egin gramatika irakasteko***

Izaro GOIRIENA FORURIA (IES Arozena-Barrueta BHI)

Azken urteetako hezkuntza planek (LOE, LOMCE edo Heziberri 2020) bigarren hezkuntzan gramatika irakastea gaitasun konkretu batzuk lortzeko helburuarekin lotu izan dute. Hala ere, hizkuntza irakasgaietan darabiltzagun terminologia eta analisi mota desberdinak kontuan izanda, zaildu egiten dugu ikasleek gaitasun linguistiko horiek barneratu ahal izatea.

#### ***Latina 60 ordutan: zertan lagunduko dit GaiGra ikuspegiak?***

Gidor BILBAO TELLETXEA (UPV/EHU)

Euskal Ikasketak edo Filologia UPV/EHUn ikasi gura duten ikasleentzat derrigorrezkoa da,

lehenengo kurtsoan, Latina irakasgaia (6 kreditu). Oso ikasle-talde berezia izan ohi da, batzuek hiru urte ikasi dutelako eta beste batzuek batere ez. Zertan lagunduko dit GaiGrak irakasgaia antolatzean?

## **2) Ikaslearen lana**

Hautazko kreditu bat lortu nahi duen ikasleak saioen hasieran zehaztuko diren irakurketa batzuk egin beharko ditu eta jardunalduei buruzko lan idatzia entregatu, 18 ordu ez-presentzialei dagozkionak.

## **KREDITUAK:**

UPV/EHU-k ikastaroko 25 orduri dagokion hautazko kreditua onartuko du.

## **MATRIKULAREN PREZIOA:**

Dohan

## **IZENA EMATEA:**

Jardunaldian izena emateko esteka:

<https://goo.gl/forms/ZJA0VXVu28Dphosl2>